DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa

Fase esperimentaleko 8. deialdia

# Ikastegietako Kalitate Batzordeek DOCENTIAZ programari buruz egindako iritzi inkestan oinarritutako txostena

**2018ko ekaina**

## 1. SARRERA

DOCENTIAZ programa UPV/EHUko irakasleen jarduera ebaluatzeko programa bat da.

Fase esperimental honetan, DOCENTIAZ programa borondatezkoa da, eta irakaslana ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaskuntzari buruzko inkesta bat beteta) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakasleen lanaren zenbait alderdiri buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako azken txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren fase esperimentaleko zortzigarren deialdia 2018ko otsailean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutaraziz, eta, 2018eko azaroan amaitu da.

Ikastegiko Kalitate Batzordeak(hemendik aurrera IKB) DOCENTIAZ programan parte hartzen duten bere ikastegiko irakasle bakoitzaren txosten labur bat egin behar du. Txosten horiek 2018ko apirilaren 9 eta 27 egunak bitartean egin ziren, telematikoki.

IKBk egindako txostenean, ikastegiko irakasleen lanaren honako alderdi hauei buruzko informazioa emateko eskatzen zaie:

I. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren plangintza eta garapena: irakasleak aurkeztutako ikaslearen gidan deskribatutako gaitasunak titulaziokoekin eta irakasgairako zehaztutakoekin bat datozen eta ikasketa planeko irakaskuntza modalitateen aurreikuspenari erantzuten dioten egiaztatu behar da.
II. Emaitzak: irakasleak hautatutako irakasgaiaren arrakasta tasak aurkezten dira, baita *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta* ere, Kalitate Batzordeak datu horiek dagokien testuinguruan koka ditzan.
III. Irakaskuntzaren koordinazioa: eskatzen da erantzutea ea ondo egin den, eta eragin positiboa izan duen arrakasta tasetan eta ikasleek duten irakasgairi buruzko iritzian.

Jarraian, IKBetako kideei egindako galdetegi batetik lortutako emaitzak ageri dira. Galdetegia bide telematikotik erantzun zen, anonimoki, eta galdetegia bidali zitzaien IKBetako 210 kidetatik 58k erantzun zuten; hau da, % 28k.

Galdetegiak 13 item ditu DOCENTIAZ programari buruzkoak, 9 galdera egitaratu eta itxiak dira, 5 baloretako eskala eskaniz galderaren enuntziatuarekin adostasun maila adierazteko, eta 4 galdera irekia.

## 1. INFORMAZIOAREN AZTERKETA

Galdetegiko galdera bakoitzerako grafiko bat dago; bertan, eskalako balio bakoitzeko erantzun kopurua ikus daiteke. Horrez gain, batez bestekoa, konfiantza tartea (%95ean), laginaren tamaina eta, azkenik, desbiderapen tipikoa daude irudikatuta. "Jasotako erantzunak" I. eranskinean, bestalde, hautaturiko aukeretako erantzunen ehunekoak ageri dira.

Atal irekia duen itemetan, bildutako erantzun multzoaren laburpen bat ere jasotzen da.

IKBk bete beharreko **lehenengo atalari** dagokionez, **"Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren *Plangintza eta Garapena*",** % 75,44 nahiko edo guztiz ados daude Batzordeak egiaztatu egin behar duela irakasleek aurkezturiko Ikasleen Gida ote datorren bat tituluan ezarritako ildoarekin, eskatutako gaiaren gaitasunekin, eta ikasketa-planen irakasteko modalitateei erantzuna ematen dien. % 8,77 ez daude oso edo batere ados IKBk atal honetan iritzia ematearekin.Bestalde, % 75,86k uste du atala erraz betetzekoa dela.

***"Emaitzak"* bigarren atalari** dagokionez:

- % 56,14k uste dute IKBk aztertu egin behar dituela irakasleen arrakasta tasak eta taldeko/mailako batez-bestekoaren artean egon litezkeen aldeak; %24,56 ez daude oso edo batere ados hori horrela izatearekin, eta %19,30 ez da ez aukera baten ez bestearen alde agertzen. % 70,69ren ustez, erraz bete daiteke atal hori.
- % 56,90ek uste dute IKBk baloratu egin behar dituela ikasleek betetako iritzi inkesten emaitzak, irakaslearen eta irakasgai, Titulazio baita Sailaren arteko aldeak aztertuz . % 27,59 ez daude oso edo batere ados hori horrela izatearekin, eta % 15,52 ez da ez aukera baten ez bestearen alde agertzen. Bestalde, % 75,86ren ustez, erraz bete daiteke atal hori.

**Hirugarren atalari** dagokionez, ***"Irakasleen garapen profesionala"***, IKBk betetzen duen azken atala, % 57,14k uste du egokia dela IKBk atala betetzea, eta beste % 23,21ek, berriz, uste du ez duela zertan bete. Gainerako % 19,64 zalantzan daude. Bestalde, % 45,45entzat erraza da atal hori betetzea.

Azkenik, %82,50ek Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak eskainitako arreta egokia izan dela uste du.

Emaitzei erreparatuta, hau ondoriozta daiteke: % 61,40 inguruk uste dute egokiak direla IKBak bere txostenean bete beharreko atalak, eta, %66,97ren ustez erraz bete daiteke atala. Bestalde, alde handia dago txosten bakoitza egiten emandako denboran, baina aurreko deialdietan emandako batez besteko denborari eutsi zaio: 1 ordu eta 25 minutu.

# Eranskina: Jasotako erantzunak

**1. itema.- 1. Dimentsioa:** egokia da Ikastegiko Kalitate Batzordeak irakaskuntza plangintzari buruzko txostena ematea baita ea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibideekin bat datorren ala ez ere




| Azterketa teknikoa | | Ondorioak |
|---|---|---|
| Batezbestekoa | 4 | "%75ek" hau aukeratu zituen: |
| Konfiantza tartea (% 95) | [4 - 4] | Nahikoa ados nago |
| Laginaren tamaina | 57 | Erabat ados nago |
| Desbiderapen tipikoa | 1 | Gutxien aukeratutako erantzuna "%4": |
| Errore estandarra | 0 | Ez nago ados |

**2. itema.- 1. Dimentsioa:** dimentsio honetan egiten diren galderei erantzutea erraza izan da aplikatiboaren ingurunean, Ikaslearen Gida eta Irakaskuntza Gida eskuragarri daudenez gero.




| Análisis técnico | | Conclusiones destacadas |
|---|---|---|
| Batezbestekoa | 4 | "%76k" aukeartu zituen: |
| Konfiantza tartea (95%) | [4 - 4] | Nahikoa ados nago |
| Laginaren tamaina | 58 | Erabat ados nago |
| Desbiderapen tipikoa | 1 | Gutxien aukeratutako erantzuna"%3": |
| Errore estandarra | 0 | Ez nago batere ados |

**3. itema.- 2. Dimentsioa "Arrakasta tasak" :** egokia da Ikastegiko Kalitate Batzordeak atal honi buruzko txostena ematea.




| **Azterketa teknikoa** | | **Ondorioak** |
|---|---|---|
| Batezbestekoa | 3 | "%56k" hau aukertu zituen: |
| Konfiantza tartea (% 95) | [3 - 4] | Nahikoa ados nago |
| Laginaren tamaina | 57 | Gutxi gorabehera ados nago |
| Desbiderapen tipikoa | 1 | Gutxien aukeratutako erantzuna "%12": |
| Errore estandarra | 0 | Ez nago batere ados |

**4. itema.- 2. Dimentsioa "Arrakasta Tasak":** atal hau betetzea erraza izan da arrakasta tasak, aplikatiboaren ingurunean, eskuragarri daudenez gero.




| **Azterketa teknikoa** | | **Ondoriak** |
|---|---|---|
| Batezbestekoa | 4 | "%71ek" hau aukeratu zituen: |
| Konfiantza tartea (% 95) | [3 - 4] | Nahikoa ados nago |
| Laginaren tamaina | 58 | Erabat ados nago |
| Desbiderapen tipikoa | 1 | Gutxien aukeratutako erantzuna "%7": |
| Errore estandarra | 0 | Ez nago batere ados |

**5. itema.- 2. Dimentsioa "Ikasleentzako Iritzi Inkestan jasotako emaitzak" :** egokia da Ikastegiko Kalitate Batzordeak atal honi buruzko txostena ematea.




| Azterketa teknikoa | | Ondoriak |
|---|---|---|
| Batezbestekoa | 3 | "%57k" hau aukeratu zituen: |
| Konfiantza tartea (% 95) | [3 - 4] | Nahikoa adoz nago |
| Laginaren tamaina | 58 | Erabat adoz nago |
| Desbiderapen tipikoa | 1 | Gutxien aukeratutako erantzuna "%14": |
| Errore estandarra | 0 | Ez nago batere ados |

**6. itema.- 2. Dimentsioa "Ikasleentzako Iritzi Inkestan jasotako emaitzak":** atal hau betetzea erraza izan da ikasleek duten iritzia, aplikazioaren ingurunean, eskuragarri dagoenez gero.




| Azterketa teknikoa | | Ondorioak |
|---|---|---|
| Batezbestekoa | 4 | "%76k" hau aukeratu zituen: |
| Konfiantza tartea (% 95) | [4 - 4] | Nahikoa ados nago |
| Laginaren tamaina | 58 | Erabat ados nago |
| Desbiderapen tipikoa | 1 | Gutxien aukeratutako erantzuna "%2": |
| Errore estandarra | 0 | Ez nago ados |

**7. itema.- 3. Dimentsioa "Irakaskuntzaren koordinazioa":** Ikastegiko Kalitate Batzordeak betetzea egokia da.




| Azterketa teknikoa | | Ondoriak |
|---|---|---|
| Batezbestekoa | 3 | "%56k" aukeratu zituen: |
| Konfiantza tartea (% 95) | [3 - 4] | Erabat ados nago |
| Laginaren tamaina | 57 | Nahikoa ados nago |
| Desbiderapen tipikoa | 1 | Gutxien aukeratutako erantzuna"%12": |
| Errore estandarra | 0 | Ez nago batere ados |

**8. itema- 3. Dimentsioa "Irakaskuntzaren koordinazioa":** atal hau betetzea erraza izan da.




| Azterketa teknikoa | | Ondoriak |
|---|---|---|
| Batezbestekoa | 3 | "%48k" aukeratu zituen: |
| Konfiantza tartea (% 95) | [3 - 4] | Nahikoa ados nago |
| Laginaren tamaina | 56 | Ez nago ados |
| Desbiderapen tipikoa | 1 | Gutxien aukeratutako erantzuna"%13": |
| Errore estandarra | 0 | Ez nago batere ados |

**9. itema.**- Adierazi txosten bakoitza egiteko erabilitako batez besteko denbora (ordutan).

- 30 minutu baino gutxiago (9)
- 30 minutu (9)
- 45 minutu (2)
- 1 ordu (17)
- Ordu bat baino gehiago, baina 2 ordu baino gutxiago (1)
- 2 ordu (3)
- 3 ordu (1)
- 4 ordu (1)

Ordu 1 eta 25 minutuko batez bestekoa

**10. itema.**- Adierazi txostena egitean izan duzun alderdi arazotsu bat

Nabarmentzera erantzunen artean, haren errepikatzeagatik edo edukiagatik, hurrengoak aipatzen dira:

1. Programak, dimentsio batetik bestera, edota informazio batetik bestera joateko, denbora gehiegi erabiltzen du. Batzutan ez dabil ondo (19).
2. Koordinazioari buruzko galderak, (batez ere hirugarrena), zehatzegiak dira, eta zailak erantzuteko, daukagun informazioarekin (10).
3. Zaila da egiaztatzea gaitasunak, Titulazioan eta ikasgaiaren Irakas Gidan emandakoekin bat datozen a la ez.(3).
4. Masterren ikasgaiei buruzko informazioa ez zegoen erabilgarri plataforman (2).
5. Master eta aukerako ikasgaietan, ikasleen ebaluazioa ezin da beste ebaluazioekin konparatu.

**11. itema.**- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko (IEZ) langileek behar bezala erantzun diete egindako galderei.




| Azterketa teknikoa | | Ondoriak |
|---|---|---|
| Batezbestekoa | 4 | "%83k" aukeratu zituen:<br>Erabat ados nago<br>Nahikoa ados nago<br>"Ez nago batere ados" aukeratu zuenik ez dago . |
| Konfiantza tartea (% 95) | [4 - 5] | |
| Laginaren tamaina | 40 | |
| Desbiderapen tipikoa | 1 | |
| Errore estandarra | 0 | |

**12. itema.**- Ikastegietako Kalitate Batzordeak egindako txostenaren edukia eguneratua izango balitz, zure iritziz, txostenak zer alderdiri buruz izan beharko luke?

1. Gaur egun egokia iruditzen zait (3)
2. Ebalututako pertsonak bere betebeharrak betetzen dituela baieztatzera mugatu beharko luke. Gainerakoa automatizatu egin beharko zen eta adituen batzordeak ebaluatu.
3. Arrakasta tasa eta ikasleen balorazioak bezalako gauzei buruz, Batzordeak, berari ez dagokion interpretazioak egin dezakeela uste dut, eta honek gaizkiulertzeak sortu. Uste dut emaitzak baxuak baldin badira, petsonak berak justifikatu beharko lukeela. Hala ere, Batzordeak ondorengo kontuetan sar liteke; Ikasgai, modulo eta titulazioen koordinazio batzarrei joaten bada ala ez, bere hobekuntzarako proposatzen zaion ekintzak betetzen baldin baditu, bere gain hartzen dituen ikasgariaren koodinakuntzaren aktak behar den moduan eta garaian entregatzen baditu, Ikastegiko Komisioetan parte hartzen badu, GALekoak bezala, espezialitateko ibilbide garapenerako batzordeak, euskara batzordea, etabar, berezkoak zaien eta titulazioaren garapenarekin lotuta daudenak, kanpoko agenteekin harremanak baditu (ikasgelara bisita, baliabideak ezagutzeko irteerak), bere ikasgaiaren gaitasunak hobetzeko, Ikastegiak iraskaskuntza hobetze aldera, eskeinitako prestakuntza ikastaroak egiten baditu.

4. Lankide eta ikasleei egindako elkarrizketak.
5. Batzordea ondorengo kontuetan sar liteke; Ikasgai, modulo eta titulazioen koordinazio batzarrei joaten bada ala ez, bere hobekuntzarako proposatzen zaion ekintzak betetzen baldin badu, bere gain hartzen dituen ikasgariaren koodinakuntzaren aktak forma eta denbora barne entregatzen baditu, Ikastegiko Komisioetan parte hartzen badu, GALekoak bezala, espezialitateko ibilbide garapenerako batzordeak, euskara batzordea, etabar, berezkoak diren eta titulazioaren garapenarekin lotuta daudenak, kanpoko agenteekin harremanak baditu (ikasgelara bisita, baliabideak ezagutzeko irteerak), bere ikasgaiaren gaitasunak hobetzeko, Ikastegiak iraskaskuntza hobetze aldera, eskeinitako prestakuntza ikastaroak egiten baditu.

**13. itema.**- Nabarmentzeko besterik baduzu, adierazi hemen.

1. Daukadan esperientzia dela eta, batzorde hauek ez dabiltza ondo, lankideak ebaluatzeko orduan sentitzen dugun errespetuagatik. Batzutan, nahiz eta ezezko iritsia euki, eta ebaluatutako pertsonak gauzak txarto egiten duela jakina, txostena aldekoa da.
2. Nola dagoen antolatuta kontuan izanik, administrazio-lana da.
3. Aplkazio informatikoa oso motela da. Txosten bat gorde, eta listatu orokorrera itzuli beharreko bakoitzean, gehiegizko denbora behar izaten zuen. Gauza bera, lehenengo orritik bigarrenera pasatzean. Espediente batetik bestera erraz joateko botoi bat jarri beharko zen. Halaber, Kalitate Batzordeak txostena egin behar duen egunetan, aplikazioa erabiltzeko moduan dagoela bermatu beharko zen; Bilduta geunden zenbait egunetan, arrazoi gabe ibiltzeari utzi zion.
4. Txosten hauek ez lituzke Ikastegiko Kalitate Batzordeak egin behar, baizik eta ebaluatzen diren irakasleen gain erantzunkizuna duten Sailek.
5. Irakas Koordinakuntza zer nolako eragina duen arraskata taseetan eta ikasleek duten iritzian jakitea ezinezkoa da.

Hurrengo barra-grafikoak galderetako bakoitzak bildutako erantzunetako multzoaren **Banaketa Ehunekoa** laburtzen du

